



Laudio Ikastola
KiVa ikastola
gara!

Zer da KiVa?

Jazarpenaren aurkako programa da KiVa, ikerketan eta froga ziurretan oinarritutakoa. Turkuko Unibertsitatean garatu da, Finlandian, eta mundu osoan zehar erabiltzen ari den programa da.



Nola funtzionatzen du KiVak?

KiVaren helburua jazarpenari aurrea hartzea eta ematen diren kasuei eraginkortasunez aurre egitea da. Hiru elementu nagusi ditu ardatz:

- 1.- Aurrea hartzea: prebentzio ekintzak. Ikasturtero tutoretzan lantzen da. Ikasleek jazarpenari aurre egiteko bitartekoak ikasten dituzte.*
- 2.- Esku hartzea: jazarpen kasuetan KiVa TALDEAK esku hartzen du, inplikatuekin lan egiten du, jazarpenari amaiera ematera bideratutako estrategiak eskaintzea da helburua.*
- 3.- Jarraipena egitea: ikasleen zein langileen artean ikasturte amaieran balorazioa egiten da.*

KiVa programaren helburuak:

Jazarpena murriztea

Jazarpen-egoerak gerta EZ daitezen prebenitzea

Jazarpenak eragindako ondorio negatiboak apaltzea.

Zer da jazarpena?

Portaera mingarria edota tratu umiliagarria egiten denean eta jazarpen adierazleak betetzen denean:

1.- *INTENTZIONALITATEA: nahita*

2.- *ERREPIKAPENA: behin eta berriz*

3.- *BOTERE DESOREKA: babesgabea den edo botere txikiagoa duen pertsona baten aurka*

Zer EZ da jazarpena?

Ez da jazarpena: liskar bat, eztabaida bat edota borroka puntual bat.

Jazarpen motak:

- *Ahozkoa*

- *Zeharkakoa: pertsona bat taldetik baztertzea eta hari buruz zurrumurrurru gaiztoak zabaltzea*

- *Fisikoa*

- *Ziberjazarpena*

Taldearen garrantzia

Jazarpena ez da soilik jazarle eta biktimen kontua. Jazarpen gertakari gehienetan, ikaskide talde bat bertan izaten da. Taldearen erreakzioak jazarritako pertsonaren bizipena eta jazarpenaren bilakaera eta iraupena guztiz baldintzatuko du.

Zer da KiVa TALDEA?

Jazarpen-kasuei aurre egiteko bi KiVa talde daude Laudio Ikastolan:

- *HH eta LHrako: Saioa Ugarriza eta Emma Ferreira*
- *DBH eta Batxilergorako: Igor Lujanbio, Leire Burdain, Beñat Pagoaga eta Laida Mendiguren.*

KiVa taldearen interbentzioa:

Berehalakoa eta informazio kontrastatua. Pausuak:

- *Gertakaria ezagutu*
- *KiVa taldea aktibatu: informazioa biltzen hasi, gertakariak identifikatu eta jazarpen adierazleak identifikatu.*
- *Jazartzaileekin hizketaldia eta konpromisoa hartu.*
- *Gurasoak informatu.*
- *Jarraipena egin.*

Familia moduan zer egin dezaket?

- a) Ikastolarekin lankidetzan jardun.*
- b) Edozein gertakari jakinarazi.*
- c) Ahalik eta azkarren jarri harremanetan Ikastolarekin.*

Informazio gehiago eskuragarri dago KiVa webgunean:

www.kivaprogram.net/basque

eta bertoko gurasoen gidan:

http://data.kivaprogram.net/basque/gurasoak/gurasoen-gida



Laudio Ikastola
somos Ikastola
KiVa

¿Qué es KiVa?

KiVa es un programa contra el acoso basado en investigaciones y rigurosos estudios. Ha sido desarrollado por la Universidad de Turku, Finlandia, y su utilización se ha extendido por todo el mundo.



¿Cómo funciona KiVa?

El objetivo de KiVa es anticiparse al acoso y afrontar de manera eficiente los casos que se producen. Cuenta con tres elementos principales:

- 1.- Anticipación: acciones preventivas: Cada curso se trabaja en tutoría. El alumnado aprende recursos para hacer frente al acoso.*
- 2.- Intervención: en los casos de acoso el GRUPO KiVa interviene, trabaja con las personas implicadas, el objetivo es ofrecer estrategias dirigidas a finalizar el acoso.*
- 3.- Seguimiento: al final del curso alumnado y profesorado realizan una valoración.*

Objetivos del programa KiVa

Reducir el acoso.

Prevenir para que NO se produzcan situaciones de acoso.

Reducir las consecuencias negativas del acoso.

¿Qué es el acoso?

Cuando se producen comportamientos hirientes o trato humillante y se detectan indicadores de acoso:

1.- INTENCIONALIDAD: a posta, queriendo

2.- REITERACIÓN: una y otra vez

3.- DESEQUILIBRIO DE PODER: en contra de una persona indefensa o con menor poder

¿Qué NO es acoso?

No es acoso: una disputa, una discusión o una pelea puntual.

TIPOS DE ACOSO

- Verbal

- Indirecto: excluir una persona de un grupo y divulgar rumores malignos sobre ella.

- Físico

- Ciberacoso

La importancia del grupo

El acoso no es sólo una cuestión entre la persona acosadora y la víctima. En la mayoría de episodios de acoso participa un grupo de alumnado. La reacción del grupo condicionará completamente la vivencia de la persona acosada y la evolución y duración del acoso.

¿Qué es el GRUPO KiVa?

En Laudio Ikastola contamos con dos grupos KiVa para hacer frente a los casos de acoso:

- *Ed. Infantil y Primaria: Saioa Ugarriza y Emma Ferreira*
- *ESO y Bachillerato: Igor Lujanbio, Leire Burdain, Beñat Pagoaga y Laida Mendiguren.*

Intervención del grupo KiVa:

Inmediata y con información contrastada. Pasos:

- *Conocer la incidencia*
- *Activación del grupo KiVa: comenzar a recopilar información, identificar los acontecimientos y los indicadores de acoso.*
- *Entrevista con la persona acosadora y toma de compromiso.*
- *Informar a madres y padres.*
- *Realizar seguimiento.*

¿Qué puedo hacer como familia?

- a) Actuar en colaboración con la Ikastola.*
- b) Comunicar cualquier incidencia.*
- c) Contactar lo antes posible con la Ikastola.*

Más información en la web de KiVa:

www.kivaprogram.net/basque

y en la guía para madres y padres :

<http://data.kivaprogram.net/guia-para-padres/>